

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2022ko uztaialak 8 · 1235. zenbakia

BOST HAMARKADA INKLUSIOA BULTZATZEN



Administración
Pública
Colegiado

ADMINISTRAZIOA

- ✓ Aurrekontua
- ✓ Kontabilitatea
- ✓ Jabeen batzarretan izatea
- ✓ Akta egitea

KUDEAKETA

- ✓ Obrak
- ✓ Lizentziak eta laguntzak
 - Eusko Jaurlarria
 - Udala

LEGE AHOLKULARITZA

- ✓ Jabetza horizontala
- ✓ Ezordaindutako enklama errekamazioa
- ✓ Sormen berriko komunitateen eraikuntza



KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

30 URTETIK GORAGOKO ESPERIENZIAK BERMATZEN GAITU

943 200 358 - www.eukicomunidades.com - ARRETA PERTSONALIZATUA ETA TELEFONOZ: 09:14:00 eta 15:30:19:30

Asteburu ezin beteagoa Amañatik IRTEN GABE

TXUPINAZOA
Eskozia la Brava

HERRI-BAZKARIA
~ Paella

KALLEJONADA
Mexico Lindo Si Señor

AMANAÑO JAIK
Larragest

KONTZERTUA
Tropa do Carallo
Reincidentes
Mugi Panderoa

DANBORRADA
Helduak

BERBENA
Lisker

KONTZERTUA
Puro Relajo

BAZKARIA
Jubilatuak

ANTZERKIA
Gora Bihotzak

DANBORRADA
Umeak

IRAILAK 7 EGUAZTENA

TIRO PITXOI JATETXEA

21:00

Arrateko Bertso Afaria



GAI-JARTZAILEA JON MIKEL MUJIKA



sarrerak

BAZKIDEENTZAT
OROKORREAN

UZTAILAK 11/22
UZTAILAK 23-ik

...ETA KITTO!-n (36€)
KULTU/GURIDI/TIRO PITXON (38€)

Jarraitu gaitzazu!



Urte garrantzitsua da Aspace Gipuzkoa elkartearentzat: 50. urteurrena ospatzen ari dira. Eta non hobe Sanjuanetan ospatzea baino? Gorka Olañeta eibartarrak elkartearen ordezkatu zuen San Juan jaietan. Gorkak bere esperientziaren berri eman digu eta Rosa Iglesiasek Aspaceko presidenteordeak ere berba batzuk eskaini dizkigu.

Uztailaren lehen domekan Eibarko erritorik zaharrenetakoa egiten da Akondiako San Pedro ermitan: konjuruarekin zelaia bedeinkatzen dira uzta ona izateko eta ekaitzen kalterik eta okerrik ez izateko. Aurten Xabier Zubizarreta San Andres elizako parrokoak esan du konjuria.

@etakitto



etakitto.eus

eta kitto!
euskarako elkarteak

ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitateak@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarteak@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ana Aizpurua

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Gora Eibar! eta Gora Aspace!

Aspace Gipuzkoak eskerrak ematen dizkie Eibarko herriari eta bertako Udalari, garun-paralisia dutenek eta euren familiek alkateari lagundu ziotelako dultzaineroekin batera udaletxera bidean eta txupinazoa botatzerakoan.

Familiek eta profesional askok, elkarteko umeekin batera, bikain pasa genuen Untzaga plazan jaiei hasiera zoragarria emanez. Gorka Olañetak, Ana Alberdik lagun-duta, Jon Iraolarekin eta beste elkarteko batzuekin batera, txupinazoa bota zuen eta herritarrak animatu zituen Gora Eibar! eta Gora Aspace! oihukatuz.

Eibar beti izan da hiri inklusiboa, eta hala erakusten du beti. Hori da jarraitu beharreko bidea garun-paralisia duten lagunak eskubide osoko herritarrak izan daitezen.

Eskerrik asko, Eibar, bihotz-bihotzez!

Aspace Gipuzkoa

Astean esanak



Sasoi bateko gauza batzuk desagertuta daude Eibarren, eta jendeak ez du jakingo nolakoak ziren ez badago argazkirik. Eibarren askotan gertatu da hori: gerra garaian suntsituta geratu zen herria, baina geroztik ere eraikin batzuk bota egin dituzte, haien ondarea kontuan hartu barik. Herriak aldatzen ari dira eta, Eibarren gainera, Alde Zaharrik ez dagoenez, dena bota dezakete. Orduan, non geratzen da historia? Memoriari eusteko oso tresna erabilgarria litzateke argazkilaritza.

JOSE LUIS IRIGOIEN, argazkilaria

Iberiar penintsulan mila erle espezie baino gehiago daude, eta munduan kopurua 20.000 espezieraino iristen da: txori espezieak halako bi! Erle horiei eta beste polinizatzaile batzuei esker, ugaldu egiten dira loreak dituzten naturako landareen %85 eta jaten ditugun laboreen %70 baino gehiago. Erleetan pentsatzen dugunean, ezti erleen ezaugarriak izaten ditugu gogoan. Baina basaerle gehienek bestelako bizimodu bat dute. Gehienak bakartiak dira, ez dute erlauntzik sortzen eta ez dute erle erreginik.

AINHOA MAGRACH, Ikerbasqueko biologoa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

OINTSUAN → Orain dela gutxi. "Ointsuan hartu dot bere kartia, etxeko barri askokin".

OINTSUENGO, OIÑ HURRENGO → Azkenengoz. "Ointsuengo euri haundixak kaltia izan dira erañentzat". "Oiñ hurrengo Donostian izan nintzarian zezen-plazia baeuan".



Idurre Iriondo

Farmaziak

- BARIXAKUA 8**
- EGUNEZ | Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ZAPATUA 9**
- EGUNEZ | Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- DOMEKA 10**
- EGUNEZ | Morgado** (San Agustin, 3)
- ASTELEHENA 11**
- EGUNEZ | Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- MARTITZENA 12**
- EGUNEZ | Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- EGUAZTENA 13**
- EGUNEZ | Barandela** (Z. Agirre, 4)
- EGUENA 14**
- EGUNEZ | Lekunberri** (Isasi, 31)
- BARIXAKUA 15**
- EGUNEZ | Barandela** (Z. Agirre, 4)

GAUEZ BETI, 2022an,
Mendinueta (Urkizu, 6)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Enrique Izturiz Olaberri.** 93 urte. 2022-06-25.
- **Maritere Aranberri Alberdi.** 98 urte. 2022-06-27.
- **Alonso Gomez Carmona.** 63 urte. 2022-06-29.
- **Javier Ugalde Agirre.** 85 urte. 2022-06-29.
- **Joxepi Zabala Olazabal.** 92 urte. 2022-06-30.
- **Francisco Javier Avellanad Palacios.** 84 urte. 2022-06-30.
- **Mireya Mendiguren Abendibar.** 78 urte. 2022-07-2.

Jaiotakoak

- **Maydi El Bouhali El Filali.** 2022-06-26.
- **Luken Barquier Bizkarguenaga.** 2022-06-27.
- **Mohamed Aarab.** 2022-06-28.



Foru Aldundiaren kontrako protestan ari dira Gipuzkoako suhiltzaileak

Gipuzkoako suhiltzaileen kolektiboa haserre dago eta Untzagan elkartu ziren San Juan bezperan, herritarrei bizi duten egoera ezaugarazi eta beraien gatazkaren berri emateko. Euren erabateko desadostasuna azaldu nahi dute Foru Aldundiak aurrikusitate etorkizuneko OPEaren aurrean. Azaldu dutenez, “gaur egun ezin diegu herritarrei kalitatezko zerbitzuak eskaini (lan txandak osatu ezinik gaude, aginte postuetan hutsune handiak daude, dotazioak osatzeko lan poltsa egokirik ez dago, interinitate tasa handia...). Eta arazo horien aurrean, Eider Mendoza gure arduradun politikoak erabaki du Gipuzkoako Suhiltzaileon kudeaketa Arkauteren esku lagatzea”.

Zerbitzua sortu zenetik, 1986tik gaurdaino, oposaketa guztiak Aldundiak berak egin izan ditu: “36 urtetan 10 hautapen-prozesu egin dira. Zergatik orain ez? Nola liteke pertsonal propioaren hautapena kanpoko beste ente batek kudeatzea? Ze interes du Aldundiak Suhiltzaile Zerbitzuaren gaineko ardurei muzin egin eta Gipuzkoako Suhiltzaileen etorkizuna Arkauteren menpe uzteko, are gehiago, suhiltzaile zerbitzuarekin zerikusi gutxi duen ente bat izanda?”. Gaur egun dituzten eskuduntzak ez dituzte galdu nahi; hautapen eta formakuntza prozesua kanpoko entitate baten esku lagatzeak erabateko menpekotasuna eta ahultzea ekarriko diela esan dute.

NAN eta Pasaportearen bulegoa arratsalde batzuetan zabalduko dute

Udaletxeko beheko solairuan da goen NAN eta Pasaportearen bulegoa 15:00etatik 18:00etara egongo da zabalik aste jakin batzuetan, zerbitzua indartzeko asmoz. Ekin-tza puntuala eta behin-behinekoa izango da; izan ere, bulegoko arduradunek adierazi dutenez, “NAN-aren eta Pasaportearen bulego guztietan dauden itxaron-zerrenda luzeak arintzea da helburua”. Hitzordua <https://www.citapreviadnie.es/citaPreviaDni/webgunearen/bitartez/eskuratu/daiteke>.



Azitaingo katekistek bazkaria egin dute

Sanjuanak baino lehen, Azitaingo parrokian katekista izandakoak bildu ziren elkarrekin bazkaltzeko. Arriarte Azitaingo erretegi berrian egin zuten bazkaria eta, esan digutenez, “egun ederra benetan” pasatu zuten.



LORADENDA

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK

Enkarguak etxera



**San Andres
Gozotegia**

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

AUTUAN

URRIAREN 22-AN OSPATUKO DA 1962-KO KINTOEN EGUNA

Urriaren 22an ospatuko dute 60 urte betetzen dutenek aurtengo kinto eguna. Eguerdiko 13:00etan elkartuko dira Udaletxeko arku-petan, zerbait hartu eta 15:00etan ARKUPE tabernara joango dira bazkaltzera. Gauerako ere plana izango dute KOSKORen. Izen ematea burutzeko 85 € sartu beharko dira, izen-abizenak jarri, ondorengo kontu korrentean: ES71 2095 5035 00 9112668939



1975-EAN JAIOTAKOEN BAZKARIA

Azaroaren 5ean ospatuko dute urte horretan jaiotako bazkaria, pandemiarengatik atzeratu eta gero. Horri buruzko informazioa jasotzeko interesa duenak, Facebook-en lagun gisa batu daiteke (Quintada Milnovecientossetentaycinco)



Domekan hasiko dira jaiak San Kristobalen, hurrengo asteburuan ospatzen jarraitzeko

Domeka San Kristobal eguna izango dela eta, egun horretan hasiko dituzte jaiak gidarien zaindarien izena duen auzoan. Hala ere, asteburu honetan Amañako jaiak ospatzen direnez, egitarauko ekitaldi gehienak, barixaku eta zapatu gauetako kontzertuak barne, hurrengo asteburuan izango dira, auzo bietako ospakizunek bat ez egiteko. Hala ere, domeka honetarako hainbat jarduera prestatu

dituzte. Goizeko 11:00etan txupinazoa bota eta tirolina ipiniko dute martxan Fray Martin Malleako parkean. Horrez gain, haurrendako marrazki leihaketa, dardo eta igel-toka txapelketa eta Moltó motorren kontzentrazio-lasterketa egingo dira. Hildakoen aldeko meza eta triki-poteoa ere antolatuta dituzte. Eta egunean, 22:00etan, igel-toka txapelketa jokatuko da Xania tabernan.

FUNEUSKADI
Ginpa-kudeatza

FUNERARIA MUGICA
Funerariak

FUNERARIA MUGICA
Funerariak

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Elbar: Osaola, 27</p> <p>Elbarko bulegoa: Bidebarrieta, 30</p>	<p>Elgoibar: Xivilion, s/n. SIGMA Industriaidea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Erasmus bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
---	--

Elbar · Elgoibar · Ermas · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

"Aurkitu lesioaren jatorria, tratatu eta utzi organismoaren eskutan"

- A. Still

OSTEOPATIA · KIROL MASAJEA
· MASAJE TERAPEUTIKOA

Bidebarrieta 6,
1. ezkerreko
T. 673 366 616

Mirian_ormaetxea
Mirian_orma@hotmail.com



Irailaren 12ra arte ez da pentsiodunen kontzentrazioarik egingo

Euskal Herriko herri gehienetan bezala, Eibarren ere asteleheneroko kontzentrazioak irailaren 12ra arte bertan behera lagatzea erabaki du Eibarko pentsiodunen mugimenduak. Oporrak hartu aurretik, gogora ekarri nahi dute ekainaren 25ean Donostian amaitu zen Euskal Herriko Pentsiodunen I. Bizikleta Martxan 20.000 lagunek baino gehiagok hartu zutela parte, eta Donostiako manifestazioan 1.000 lagunetik gora batu zirela. Diotenez, “kontzentrazioarik

gabeko bi hilabete horiek energiak kargatzeko eta lan egiteko eta erantzuteko modu berriak aztertzeke balio behar digute, baita gure eskaerak egunean jartzeko ere. Bada garaia Gasteizko Gobernuak pentsiodunen mugimenduari proposamena bere gain hartzeko eta eskatzen den ponentzia abian jartzeko, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa bermatzeko, partida ekonomiko espezifiko batekin, Madrilgo gobernuak bere gain hartu arte”.

Konjurua egin zuten domekan Akondiako ermitan

Uzta ona izateko eta ekaitzetatik babesteko erritua, zelaiak bedein-katzeko ohitura oso zaharra da Eibarren eta aurten ere hala egin zuten domekan, Akondiako ermitan, Xabier Zubizarreta parrokoak egin-dako konjuruarekin. Antzina latinezko otoitza egiten zen, baina gaur egun euskeraz aritzen da abadea.

Bideoa ikusgai



XVII. Eibarko Lambretta Topaketa egingo da gaurtik domekara bitartean

Eibarko Lambretta Klubaren eskutik, asteburu honetan egingo da XVII. Eibarko Lambretta Topaketa. Egitaraua gaur hasiko da, topaketarako kanpotik etorritakoei harrera egin eta ondorengo afariarekin. Bihar, berriz, 10:00etan hasiko dira parte-hartzaileen akreditazioak banatzen, Untzagan. Eguerdian kalejiran ibiliko dira motorrak herriko kaleetan eta, ondoren, Trabakuara

joango dira, Enrique Mugarzari omenaldia egitera. Handik Arratera joango dira motorzaleak, bertan bazkaldu eta opariak banatzeko. Jaisterakoan, Amañara joango dira, auzoko jaiak direla aprobetxatuta motorrak bertan erakustera, eta afari-meriendarekin amaituko dute eguna. Domekan agurtuko dute urteroko topaketa motorzaleek, eskualdean zehar egingo duten irteerarekin.



Soraluzetik, Debatik, Itziartik eta Eibartik berrehun lagun inguru abiatu ziren Etxalar aldera, Kokori mendilerroa argizatuzera. EGOITZ UNAMUNO

Erabakitzeko eskubidearen argiak piztu zituzten Kokorin

Euskal Herriko eta Kataluniako milaka herritarrek Pirinioetako 300 tontor baino gehiago argiztatu zituzten zapatuan, uztailaren 2an, 430 kilometro baino gehiagoko argi lerroa osatuta. Debarrenetik (Soraluzetik, Debatik, Itziartik eta Eibartik) ere hainbatekin egin zuen bat ekimenarekin eta gure eskualdetik joandako berrehunen bat herritarrek Etxalarko Kokori mendilerroa argiztatu zuten.

Gure Eskuk Kataluniako ANC Biltzar Nazional Katalanarekin, FEEC Kataluniako Txangozale Erakundearen Federazioarekin eta Omnium Cultural eta Artistes de la Republica elkarrekin batera elkarlanean antolatu zuen Pirinioetako Bidea-Via Pirinencia ekimenarekin herrien burujabetzaren aldeko aldarrikapena nazioartean zabaltzea zen asmoa.

22:00ak aldera, gainerako mendietara joandako herritarre-



kin bat eginez, debarrenetarrek bostehun bat metroko argilerroa osatu zuten Kokori mendilerroaren bi puntutan, asmo horrekin eramandako frontal eta farolak baliatuz. Urrunean Larrun mendia eta beste hainbat mendi tontor ageri ziren, haiek ere argiztatuta.

Hamar terdiak aldera, Iñaki Amuategi Gure Eskuko kideak nazioarteko komunitateari zuzendutako mezua irakurri zuen: “Mezu argi bat bidaltzen ari gara gaur Pirinioetatik mundura: libre eta burujabe izan nahi dugu, gure etorkizuna erabaki nahi dugu, eta herritarron borondatea entzun eta errespetatu dadin eskatzen dugu. Lurralde bateko herritarren gehien-goak estatu berri bat sortzea hautatuz gero, posible izan behar du herri borondate demokratiko hori bururaino eramatea. Demokrazia eta askatasun kontu bat da: mugak demokratikoki erabaki behar dira, botoen bidez, eta ez inposizio, indarkeria edo gerraren bidez”. Kantuan agurtu zuten ekimena.

“Autonomia digitala nahi badugu, tresnak geuk ordaindu beharko ditugu”

BEÑAT IRASUEGI • Olatukoop-eko kidea



“Irakasleentzat literatura irakurtzeko eta ikertzeko tresnen bila. Irakurketa feminista eta kolektiboa”, Andrea Perales eta Gema Lasartek koordinatutako ikastaroarekin hasi ziren UEUren 50. urteurreneko bigarren asteko ikastaroak Eibarren, martitzenean. Egunotan online irakaskuntzaren testuinguruak eta horietarako eredu teknologikoak aztertu dituzte, besteak beste. Eta, datorren astean, Matematikari Euskaldunen V. Topaketa eta Hizkuntzalari Euskaldunen VI. Topaketa egingo dira Markeskuan.

UEUko Ekonomia Sailak “Enpresa euskaldunen erronkak” jardunaldia antolatu du 50. Udako ikastaroen baitan. Mundu akademiko eta lan munduaren arteko zubiak eraikitze aldera, gaur egungo egoeraren azterketa egitea izan dute helburu eta enpresa euskaldunen digitalizazioari buruz hitz egiteko gonbidatu dute Beñat Irasuegi Olatukoop-eko kidea.

Enpresa euskaldunen erronketan zer leku du digitalizazioak?

Enpresek digitalizazioa erronka garrantzitsu bezala ikusten dute, baina iruditzen zait gero norberak eremu hori lantzerakoan bigarren mailako zerbait bezala gelditzen dela. Askotan IKT-etan debaldeko tresnetara jotzen da eta GAFAM-en (Google, Amazon, Facebook, Apple eta Microsoft) esku dauden tresnak erabiltzen dira enpresen digitalizazioaren oinarri bezala. Horrek ondorio garbi bat du: enpresaren autonomia galtzen da tresna digitalekiko, eta euskararekiko ere arazoak sortzen dira. GAFAM enpresa hauek garatzen dituzten tresnak ez daudelako euskaraz. Hauen alternatiba

software libreko tresnak dira, gehienak euskaratuta daude eta euskaraz ongi funtzionatzen dute.

Hitzaldian aipatu duzu digitalizazioa kooperatibismotik eman behar dela. Zergatik?

Iruditzen zait kooperatibismoan edo ekonomia sozial eraldatzailean oraindik digitalizazioa kanpoko zerbait bezala ikusten dela. Esparru batzuetan, elikadura burujabetzan edo energia burujabetzan, pausuak eman dira, baina digitalizazioan burujabetza ez dago nahiko txertatuta. Kanpoko tresnekiko dependentzia handia baita kooperatibismotik edaten duten enpresetan ere. Digitalizazio eredu desberdin batek, burujabeagoa den eredu batek, kooperatibismorako hainbat tresna hartu ditzake; interkooperazioarena, adibidez. Hau da, elkarlana egitea kooperatiba desberdinen artean tresna digital bateratuak sortu, garatu eta mantendu ahalizateko. Elkarlana egin beharrak erdigunean jarritz.

Ekonomia soziala, tresna libreekin eta euskaraz lan egitea da enpresen etorkizuna?

Lurraldeari eta pertsonen beharrei egokitu eta atxiki-



tako ekonomia eraikitzen sortuko dugu digitalizazio emanzipatzailea. Gaur egun digitalizazio oso modu negatiboan bizi dugu, digitalizazioak gure bizitzak hartu dituelako. Digitalizazioak gure bizitzetan denbora libre gehiago emateko tresna izan beharko luke eta ez alderantziz.

Zergatik hartu behar dute enpresek kontuan teknologia digitalaren kostua?

Enpresa guztiek geroz eta tresna digital gehiago asumitu beharko dituzte eta horrek kostu bat du, bai monetarioa edo datuen dependentziakoa. Gauzak merkeagoak badira, ziurrenik tresna digitalak ematen dizkizun korporazio horrek zuregandik beste zerbaitez hartzen duelako da. Askotan zaila da horren kontzientzia hartzea eta zaila da jakitea noraino lortzen duen hori. Horri buelta eman behar diogu, burujabe izan nahi badugu. Normalean enpresa guztiek autonomia nahi izaten dute lan egiten duten esparruan, baina digitalizazioan ez da hain argi ikusten. Autonomia digitala nahi badugu, tresnak geuk ordaindu beharko ditugu, hau da, lainoa den esparru sinboliko hori,

oso fisikoa dena oinarrian, geuk ordaindu beharko dugu. Dirua inbertitu behar da azpiegiturretan, softwarea garatzen eta hardwarea ekoizten. Teknologia digitalak merkeak izatera ohitzen bagara, gero autonomia nahi dugunean horrek izan dezakeen kostea handia izango da.

Euskal Herrian badugu estrategiarik digitalizazio burujabetzarako?

Oso eragile interesgarriak badauden arren, ez dago estrategiarik. Euskal Herrian, euskarak berak euskaraz bizitzeko eta lan egiteko egon den beharragatik, teknologia digitalak euskaraz garatzeko testuingurua sortu da eta baita sare ekonomiko bat ere. Teknologia-aren garapena euskaraz egiten duten enpresak daude, hori badugu, baina ez dago horren artikulatze bat. Enpresa munduak eta administrazioek ere ez dute estrategiarik. Dagoena oso liberala eta korporazio handiekiko oso mendekoa da. Datozen urteetan europar testuingurutik sortuko dira beharrak eta mugimendu sozialean, enpresa txikien artean, kontzientzia pizte txiki bat ere badago eta hori ona da.

“Enpresa bat sortzeko lehen etapatik lagundu nahi dugu, ideiek lurra hartzetik”

ANA TELLERIA • *Garapen Ekonomikoko zinegotzia*



Eibarko Udalak eta Debegesak Heldu! izeneko programa jarri dute martxan herrian ekintzailtza sustatzeko. Hasierako fasean dauden eta izaera berritzailea duten ideia edota negozio-lerro berriak probatzeko eta baliozkotzeko diseinatua dagoen programa da, eta hiru hilabeteko iraupena izango du.

Heldu! programako parte-hartzaileek formazio espezializatua (32 ordu), adituen aholkularitza (80 ordu) eta tutoretza pertsonalizatua (20 ordu) jasoko dute ezagutza-arloan eta enpresa-proiektu berriak abian jartzeko laguntzan esperientzia handia duten adituen eskutik. Laguntza-prozesua abenduaren erdialdera arte luzatuko da eta Debegesako pertsonal teknikoak koordinatuko du.

Zein da Heldu! programaren helburua?

Norbaitek negozio-idea bat baldin badu eta beldurra ematen badio aurrera egitea, programa honetara aurkeztu dadila. Izan ere, hiru hilabeteko epean bere ideiak etorkizuna duen ala ez jakingo du. Pandemia sasoian buruari buelta asko emateko aukera eduki dugu eta badakigu ideia asko daudela hemen inguruan, baina ez da erraza aurrerapausoak ematea. Ekintzailtza aukera bat da, baina baita erronka ere, eta ekiteak beldurra eman dezake. Horregatik, Udala eta Debegesa bidelagun izanik eta aditu sorta handi

eta indartsu batekin, hiru hilabetetan gauzak argitzen eta bideratzen lagunduko diegu parte-hartzaileei.

Proiektu- edo negozio-idea horiek moduren batean garatuta egon behar dira, edo ideia soilak nahikoa izan daitezke?

Idea bat nahikoa izan daiteke. Lehentasunezko arlo batzuk zehaztu ditugu (doitasun-ingeniaritza, industriari lotutako zerbitzuak, 4.0 industria, klimaldaketa eta energia jasangarria, kirolari aplikatutako teknologiak, eta berritzailetzat jotzen den eta Eibarren gara daitekeen beste edozein ideiak), baina ez dugu beste edozein ideia baztertzen. Dagoeneko bi ideia proposamen jaso ditugu, baina irailaren 11ra arte dago zabalik izena emateko epea.

Zergatik proposatu dituzue lehentasunezko arlo horiek? Beharrak ikusi dituzue?

Inguruko enpresekin eta sektoreekin berba egin ondoren, Eibar eta Debabarrena ekonomikoki garatzeko lagungarriak izan daitezkeen enpresak zeintzuk izan daitezkeen aztertu genuen eta hortik abiatuta garatu genuen zerrenda. Mota horretako negozioen



falta edo horiek sustatzeko beharra dago, hori delako etorkizuna. Balio erantsi handiko negozioak dira eta aberastasuna, kalitatezko enplegua eta talentua ekarriko lukete.

Programak izango duen hiru hilabeteetan nolako prozesua jarraituko duzue?

Programa praktikoa izango da %100ean. Parte-hartzaile bakoitzarekin konpetentzia batzuk landuko dira, formakuntza espezializatua emango zaie, adituen eskutik aholkularitza zerbitzua jasoko dute eta tutoretza pertsonalizatua izango dute edozein zalantza argitzeko, beldurrak uxatzeko eta bidelagun bezala.

Hiru hilabeteak pasa ondoren parte-hartzaileak plan batekin irtingo dira?

Udalak, Debegesak, BICek eta beste hainbat erakundeek programa ezberdinak dituzte ekintzailtza sustatzeko, baina programa hau enpresa-haztegi-tan sartu aurretiko fasean dauden ideientzat dago bideratuta. Haztegian sartu ahal izateko proiektua garatuta egon behar da nolabait eta horra heltzeko bidea egin behar da. Beraz, programa honekin ideiei

lurra hartzen lagunduko diegu eta gero, hortik zerbait irten daitekeela ikusten badugu, beste fase bat hasiko litzateke. Aurre-ekintzailtza deitu ahal diogu honi. Izena emateko inprimakia betetzean argi ikusten da hori, ez delako proiektuaren zehaztasun handirik eskatzen. Gero, Debegesa eurekin harremanetan jarriko da, ideia zein den entzungo dute eta horri forma ematen saiatuko dira. Agian ideia guztiek ez dute aurrera egingo, baina batzuek agian bai.

Debegesak eramango du programaren gidaritza?

Bai. Gainera, Debegesaren eraikinean egin den enpresa-haztegi berriko coworking gunea aprobetxatuko dugu programa garatzeko. Horrela, inguruko enpresek hartu-emana edukitzeko eta jendea ezagutzeko aukera gehiago izango dituzte. Elkarlanak sustatuko ditugu ekiten dauden beste proiektu batzuk zein fasetan dauden eta horra heltzeko nolako lana egin behar izan duten ikusteko. Enpresa bat sortu arte hainbat etapa pasa behar dira eta etapa horietan lagundu nahi dugu, lehenengo fasetik hasita: Ideiek lurra hartzen duen une beretik.



Juan San Martini omenaldia bere jaiotzaren mendeurrenean

Eibarko Udalak eta Euskaltzaindiak gogora ekarri zuten Juan San Martinen jaiotzaren mendeurrena (1922-2022), ekainaren 22an Eibarren egindako ekitaldian. Euskaltzaindiak idazlearen sorterrian egin zuen ekaineko bilkura eta ondoren, eguerdian, udaletxeko pleno aretoak hartu zuen Ageriko bilkuran, euskaltzale eibartarraren bizitza eta lana gogoratu zituzten eta, jarraian, Udal Liburutegian mendeurrenaren plaka ipini zuten.

Bideoa ikusgai Eibarko Udalaren webgunean:



Bilkurarako etorritako euskaltzainak eta euskaltzale asko bildu zuten ekitaldian, alkatearen aurkezpenaren ondoren Luis Alberto Aranberri *Amatiño* kazetaria eta ohorezko euskaltzaina eta Jabier Kaltzakorta euskaltzain osoa aritu ziren berbetan, aurrenak “Sorlekutik sorlekura” eta hurrenak “Juan San Martinen gaztetako lanak: Zirikadak eta Eztenkadak” berbagai hartuta. Hizkuntzalaritzatik haratago, San Martinek espeleologia, argazkilaritza, etnografia eta beste hamaika esparrutan egindakoak ekarri zituzten gogora.

Bere jaiotzaren mendeurrenaren aitzakiarekin, Udalak herriko seme kutunetako bat den Juan San Martin euskaltzaina omendu nahi izan du aurten eta, horretarako, Euskaltzaindiari eskatu zion ekaineko ohiko Osoko bilkura Eibarren egin zezala, “hizkuntzaren aldeko lan etengabearen aritu baitzen eibartarra akademiaren magalean, euskarak haizea alde ez zuen urterik zailenetan”.

Akademiako bere ibilbideari begira jarrita, Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen 1958an, eta 1964an euskaltzain oso. Euskaltzaindiko idazkaria izan zen 1967-1978 aldian, eta 1988. urtean euskaltzainburuorde. Arantzazuko 1968ko bileran euskara batuaren aldeko apustu sendoa egin zuen, ez bairik gabekoa; eta hilabete batzuk lehenago, haren ekimenez, idazle talde batek “Ermuko Zina” deritzon dokumentua izenpetu zuen, hizkuntzaren batasuna eskatzeaz gain, herri-hizkeren garrantziaz ohartaraziz: “Euskararen enborretiko adarrak dira euskalkiak, eta adarrak sano izango baditu, enbor sendoa eta osasuntsua behar du. Euskara Batuaren sendotasunak hobeto gordeko ditu euskalkiak ere”.

Jaioterrian, San Martinek lan handia egin zuen hainbat arlotan: Klub Deportiboan arrastoa utzi zuen mendizaletasunean, espeleologian eta



eskaladan; eta, Deportiboko Kultura saila sortzeaz gain, kirol-ekintzen osagarri, hango liburutegia garatu zuen, hainbat hitzaldi, mahai-inguru eta erakusketa antolatuz. Bera izan zen, Euskaltzaindiak antolatuta, Eibarko Amaya antzokian 1962ko azaroaren 11n egin zen Gipuzkoako Bertso Txapelketaren finalaurrekoaren bihotza eta arima, Lazkao Txikik Eibarko Udalaren kopa irabazi zuen egunean.

Ekintzaile eta sustatzaile nekazina

Eusko Legebiltzarrak 1989. urtean ararteko izendatu zuen eta Arartekoaren erakunde sortu berria osatu eta egituratu egin behar izan zuen, ezerezetik abiatuta, oinarriak eta helburuak finkatuz eta lana erruz eginez. Apaltasunez eta jakin-minez jardun zuen karguan; independentzia, askatasunaren eta justiziaren alde eginez. Egiteko gazi-gozo hartan, Arartekoaren historiako geratu dira ziegei buruz edo psikiatrikoei buruz egin zituen txosten sendoak. 1994an Europako arartekoen buru izendatu zuten.

Eragile eta sustatzaile, haren ekimenari esker sortu ziren Euskal Idazleen Elkarte eta Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarte, Egan aldizkaria eta beste hainbat asmo. Idazle eta artezale porrokatua, hainbat argitalpenek darakutsate haren luma zorrotz eta gai askotarikoa.

San Martinen omenezko ekitaldiari amaiera emateko, Uxue Alberdi idazle eta bertsolariak Elizanbururen poemak abestu zituen. Oier San Martin "Juanitoren" semeak lora-sorta jaso zuen Jon Iraola alkatearen eskutik eta Andres Urrutia Euskaltzainburuak, berriz, grabadore bola. Omenaldia biribiltzeko, euskaltzain eibartarraren izena daraman udal liburutegira abiatu ziren, bertan urteurrenaren plaka ipintzeko.



Klub Deportiboan arrastoa laga zuen mendizaletasunean, espeleologian eta eskaladan, eta bertako Kultura saila sortu zuen



Luis Alberto Aranberri Amatiño kazetari eta ohorezko euskaltzainak eta Jabier Kaltzakorta euskaltzain osoak egin zuten berba.



Aspace: 50 urte inklusia bermatzen

Urte garrantzitsua da Aspace Gipuzkoa elkartearentzat: 50. urteurrena ospatzen ari dira. Azken urteotan aldaketa sozial ugari egon diren arren, ASPACEren helburua ez da aldatu: garun-paralisia edota antzeko alterazioak dituzten pertsonen eta haien senideen bizitza kalitatea hobetzea. Oso pozik daude San Juan jaietan Eibarko herriak egin dien omenaldiarekin eta euren esker ona adierazi nahi izan dute urte hauetan jaso duten babesagatik. Hala ere, inklusioaren alde bidea egiten jarraitzeko beharra gogoratu digute.

Aspace Gipuzkoa elkar-
tea izan da omenduetako
bat aurtengo San Juan
jaietan. Elkartea ordezkatzeko Gorka Olañeta eibartarra ikusi dugu jaietako hainbat ekitalditan. Udaletxeko balkoira igo zen Gorka pregoian parte hartzeko eta txupinazoa botatzen ere egon zen. Hori baino lehen, dultzaineroen kalejiran parte hartu zuen aurtengo beste omenduekin eta udaleko ordezkari politikoko guztiekin batera. Pozik dago Gorka jasotako maitasun eta errekonozimenduarekin. Oso egun berezia izan zen berarentzako eta Untzaga plazan bildu zen Aspaceko familia osoarentzako (elkarteko umeak, familiak eta profesionalak). 50 urte betetzen ditu aurtun elkarreak eta oso eskertuta daude Eibarko Udalak eta herriak eman dien aukeragatik.

Eibarko ikastolan egin zituen ikasketak Gorkak, eta informati-

kako prestakuntza ere jaso zuen. Gorka itsua da eta ez du ehuneko ehunetan betetzen Aspaceko ki-deen profila. Hala ere, berak kon-tatu digunez, Aspacen aurkitu du bere lekua. Lehendik ere ezagutzen zuen Gorkak elkarrea, bazkarieta-
ra eta bisitan joaten zelako, baina 2016an, orain dela sei urte, hasi zen Aspace Arrasaten daukan eguneko jardueren zentroa joaten.

Lehengo hilabeteetan probatzen ibili zen eta zentroan egiten diren bi zerbitzu edo lan-mota ezagutu zituen: garbiteria eta otargintza. Gehien gustatu zitzaiona garbiteria izan zen, eta horretan dihardu gaur egun ere. Garbiteriako langileek eguneko zentroko eta etxebizitza-zerbitzuko arropak garbitzen, sailkatzen eta lisatzen dituzte. Izan ere, familiarik ez daukaten edo euren etxeetan arreta jaso ezin dezaketan Aspaceko erabiltzaile batzuk etxebizitzak konpartitzen

dituzte Arrasaten bertan eta han-
goei ere arropa-garbitzeta zerbitzua eskaintzen diete Gorkak eta bere lankideek.

Hobeto jendez inguratuta

Arrasateko eguneko zentroko eta etxebizitzetako erabiltzaileak, 33 inguru, elkarrekin ibiltzen dira lanean, batzuk garbiterian eta beste batzuk otargintzan. Goizeko 09:00etatik 17:00etara egoten da Gorka Arrasaten, eta gero Eibarrera bueltatzen da. Gustura sentitzen da Gorka eguneko zentroan eta, orain dela urte batzuk hain ondo egongo zela jakin izan balu, lehenago hasiko zela esan digu. "Askoz hobeto nago jendez inguratuta egun osoan etxean sartuta baino. Oso gustura joaten naiz", esan digu. Orain dela gutxi Gorkaren amak osasun-arazo bat izan zuen, mokorra apurtu zuen, eta Gorka pare bat hilabete egon zen Arrasateko etxebizitza



Bideoa hemen
ikusgai:



Gorka Olañeta udaletxera igo zen Aspaceko ordezkari moduan herriko jaietxerak hasiera emateko. Eibarko Aspaceko familia osoak ederto pasa zuen eta asko eskertzen dute elkartearen 50 urteurrenean egin zaien omenaldia. ARGAZKIAK: ARANTXA GARIN



Goiko argazkian Rosa Iglesias Aspace Gipuzkoako presidenteordea. Egin zaien omenaldia eurentzat oso garrantzitsua dela esan digu. A. GARIN

batean bizitzen. Etxebitza hauetan bizi direnentzako laguntza gehiago beharrezkoa dela dio Gorkak: "paseo txiki bat emateko, kafetxo bat hartzeko.... bestela oso gutxi irtetzen dira kalera".

Sanjuanetako omenaldia poz-tasun handiarekin gogoratzen du Gorkak: "Oso *intensoa* izan zen, dena batera. Egun batzuk aurretik ea urduri nengoen galdetzen zidaten lagunek eta ezetz esaten nien, izatekotan egun berean jarriko nintzela, baina ez aurretik. Dultzaineroen ongiatorrian eta kalejiran egon nintzen, udaletxeko balkoitik hitz batzuk esan nituen eta ondoren txupinazoa bota nuen. Oso polita izan zen".

Aspace Eibarren

Rosa Iglesias garun-paralisia daukan neska baten ama da. 22 urte daramatza elkartean eta orain, gainera, elkarteko presidenteor-

>>> "Gure umeez besteek dituzten aukerak izatea nahi dugu. Bisibilitatea eta normalitatea funtsezkoak dira"

>>> "Bide luzea egin da eta oso eskertuta gaude, baina oraindik gauza asko daude egiteko"

de moduan dihardu. Rosaren berbetan, "50. urteurrenean eskerrak eman nahi dizkiogu gizarteari (familiak, boluntarioak, enpresak, erakundeak...) jasotako laguntzagaririk, eta aldarrikatu nahi dugu egindako guztiak jarraipen bat daukala, behar handiak dauden pertsonak daudela eta jarraitu behar dugula inklusiorako bide horretan".

Aspacek Eibarren daukan zentroa 1973an jaio zela azaldu digu Rosak. Gipuzkoako bigarren zentroa izan zen, Donostiakoa eta gero, eta Peli Egaña eibartarrak eta beste hainbestek garai hartan egindako lan izugarria ekarri digu gogora. Eibarko zentroa hezkuntzan dago espezializatua eta bertara joaten dira garun-paralisia edo antzerako alterazioen bat

>>> "Gure eskola Eibarko beste edozein eskola bezalakoa da, Eibarkoa, herrikoa, baina askotan gogorarazi behar izaten diegu agintariei eta gizarteari"

daukaten adin txikikoak. Eskola Santaines kalean dago, Argatxa eraikinean, kiroldegiairean parean.

Eskola inklusiboa, herrikoa

Rosak dioenez, "Eibarkoa eskola inklusiboa da, herrikoa. Gure umeez herriko ekintza eta jaietan parte hartzea oso garrantzitsua da. Txupinazoan egotea edo jaietan aktiboki parte hartzea guretzako oso garrantzitsua da, baina are garrantzitsuagoa da garun-paralisia duten pertsonen errealitatea eza-gutzero ematea gizartean, inpaktu positiboa sortuz".

Bisibilitatea eta normalitatea funtsezkoak dira Aspaceko umeentzat, eta "herrietako ekitaldi desberdinetan, adibidez multikiroletan edo festetan, edozein ume bezala parte hartu beharko lukete. Agintariei helarazi nahi diegun mezua da gure eskola beste edozein eskola bezalakoa dela, Eibarkoa, herrikoa. Askotan ez dira konturatzeko eta gogorarazi egin behar zaie. Umeak konturatu egiten dira, eta ikustea modu inklusibo batean parte hartu dezaketela... horrek ez dauka preziarik. Eskerrak gizarte



Erabiltzaileek, familiek, profesionalak eta boluntarioek izugarriko pisua daukate Aspacen, eta hori azaldu dute "50 urte inklusioa bermatzen" erakusketa ibiltariaren bitartez. A. GARIN

honetan pausoak ematen ari garen, baina hori da 50 urte hauetan hainbeste aldarrikatu dena: inklusioa. Bide luzea egin da, baina oraindik gauza asko daude hobetzeko".

Laguntza, ezinbestekoa

Elkarte handia da Aspace: 472 lagun eta beraien familiak, 340 profesional, 126 boluntario... Dexte profesionalizatu da, baina familiek pisu handia izaten jarraitzen dute. Aspace Gipuzkoa errealitate bat izatea garun-paralisia duten seme-alaben mesedetan inplikatzeko jakin zuten familiei esker izan da,

beraiek zabaldu zuten errealitate hau Gipuzkoa osoan. 50 urteren ondoren, beste familia batzuek hartu dute erreleboa.

"50 urte inklusioa bermatzen" Aspace Gipuzkoaren 50. urteurreneko erakusketa ibiltaria egon da ikusgai Untzagako jubilatuen egotzako erakusketa aretoan. Rosa Iglesiasek azaldu digunez, "gurea bezalako elkarte batek laguntza behar duela aldarrikatu nahi izan dugu erakusketarekin. Laguntza guztiak ongi etorriak dira: erakunde, enpresa pribatuak, boluntarioak... edozeinenak izanda ere".

Gaurko txupinazoak piztuko ditu Amañako jaiak

Asteburu ezin beteagoa eskainiko diete Amañako Jaiak, “ez auzokoei bakarrik, baizik eta eibartar guztioi, inguruko herrietatik gura etortzen diren guztiei ahaztu barik”, Jose Antonio Alberdi “Goma”-k dioen bezala. Bera da Amaña Jai Batzordeko buru eta arima, eta lan horretan lau hamarkadatik gora daramatza. Ibakurutzen bizi bada ere, oso lotua dago aspalditik Amañako auzora eta han ez da egongo ezagutzen ez duenik. Ezta Eibar guztian ere. Urte guztia ematen duelako errifak saltzen, baita Eibartik kanpo ere. Batzorde horrek antolatzen dituen tamaina horretako jaiak prestatzeko lan handia eskatzen duelako. Horregatik, askok dioten bezala, “Goma-k lagatzen duenean... orduan bai igarriko dela”. Berak, bitartean, prest heltzen dio lan horri, “Amañako jaiak munduko onenak” izateko ahaleginean.



Amañako Jai Batzordeko Jose Antonio Alberdi “Goma”.

Edizioak izan dira, oso urrutira joan gabe ere, bi asteburuko jai-egitaraua prestatu dituztenak. Oraingoan, bakarra izanda ere, hiru egunetan ekitaldiz betetako programazioa eskainiko du Jai Batzordeak. Eta hurrengo asteko barixakuan izango da baita zertaz gozatu ere, orduko horretan inoiz ahaztu ez dituen auzoko jubilatuek kontuan dituela: “Hasiera-hasieratik pentsatu genuen adinean sartutakoek ondo merezita dutela horrelako bazkari bat, eta auzoko elkarteei esker ekin genion bide horri”. Jubilatuendako bazkari hori hilaren 15ean egingo dute, Unzaga Plaza hotelean, 14:30ean hasita.

Itzelezko ohiko kontzertua

Urtetik urtera lehen eguneko gau-kontzertua izaten da jende gehien batzen duen ekitaldia. Jaietarako hila beteak falta direla ahoz-aho ibiltzen delako jendea “aurtengoan zein talde etorriko dira?” galdetzen. Alternatiboen bila edo! Eta, bi urtetako “derrigorrezko atsedendia” ondoren, oraingo karteldegia ere ez da nolana hikoia izango: gure herriko Mugi Panderoarekin batera, estatu mailan ezagunagoak diren Evaristo ospetsuaren Tropa do Carallo talde berriak eta Reincidentes lehen ere Amañan izandakoak osatuko dute gaur 23:00etan hasiko den emanaldia.

Aurretik, baina, eta jaiari hasiera emateko, behar-beharrezkoa den txupinazoa izango da, Eskozia la Bra-va peñaren eskutik, Eibar FT animatzen “erakutsitako jardunbidea errekonozidu eta saritzeko asmoz”. Arratsaldeko 19:00etan jaurtiko dituzte txapligu horiek eta inguruan sortuko den jai-giroan zeregin zuzena izango du Ermuko Irulitxa txarangak, kuadrilen jai-tsiarekin hasita.



Evaristoren Tropa do Carallo talde berriaren kontzertu bakanetakoa izango da gaur.

Paella herri-bazkariko protagonista

Biharko egunean ere musika nagusituko da Amañako kale guztietan, batez ere arratsalde eta gaueko tarte horretan. Jai horietan ohikoa bihurtu den mariatxien presentzia 19:30ean hasiko da, Mexico Lindo Sí Señor taldeak eskainiko duen kallejonadarekin, ondorengo kontzertuarekin jarraitzeko. Horiei Distopia elektro-tarangak hartuko die lekukoa herri-afariaren ordua iritsi arte. Behin gauean sartuta, Lisker gure herriko taldeak berbenari ekingo dio 23:00etan, tartean helduen danborradari protagonismoa eskaini eta ondoren berriro euren doinuekin jarraitzeko goizeko ordu txikiak arte.

Musikarekin hasi aurretik, dena dela, goiz eta eguerdi partean izango da zerekin gozatu, ikusita Jai Batzordekoek prestatu dutena. 10:00etatik 15:00ak arte Merkadillo Azoka izango da Amañako plazan eta 14:30etik aurrera inoiz kalerik egin ez duen herri-bazkariak auzoko asko hartuko ditu paella erraldoiarekin. Ondoren, eta mariatxia hasi arte, gaztetxoek izango dira kaleetako jaun eta jabe: "16:30ean umeendako parkea muntatuko dugu, gaztelu puzgarri eta espumajaiarekin", dio Goma-k. Txokolate-jana ere ez da faltako, 19:15ean, ordurako gose izango diren umeentzat.

Puro Relajo asteburua agurtzeko

Domekako goiza urteroko mezarekin abiatuko da, antolatzaileek dioten bezala "Amaña eta Eibar guztiko hildakoen alde". Amañako parrokiako elizkizuna amaituta, 12:00etan salda eta txorizoa banatuko dira bildutako duztien artean, handik ordu erdira berriro ere danbor-hotsak entzuten hasteko. Umeen danborrada 14:00etarako amaituko da eta une horretan banatuko zaizkie ongi merezitako ogitartekoak eta freskagarriak. Umeena izango da etziko arratsaldea ere, 18:00etan Amaña es la Caña elkarteak egingo duen sari-banaketarekin batera, ordu berean hasiko delako "Gora bihotzak" umeendako antzerki-ikuskizuna. Ogitarteko-erdiak saltzen hasiko dira handik gutxira, egun guztietan zabalik egongo den txosnan. Eta 20:00etatik aurrera gaur egun Euskal Herriko talderik entzutetsuenen artean dagoen Puro Relajok kontzertua eskainiko du, tartean euskal abestiak eskainiz, "jai-amaiera ezin aproposagoa eskainiz".

**Eskozia
la Brava
peñakok
jaurtiko dute
jai hasierako
txupinazoa
gaur 19:00etan
plazatik**

**Helduen
danborradaren
ondoren
Lisker taldeak
eskainiko
duen berbenak
luzatuko du
biharko gaua**

**Domeka
arratsaldean
"Gora
bihotzak"
umeentzako
antzerki
ikuskizuna
eskainiko da**



Poesiak ere badu interpretaziotik. POESIA...ERES TÚ

“Errepidea eta eszenatokiak dira musikaren benetako saltsa”

FERNANDO MADINA • *Reincidentes*



Amañako Jaietan kontzertu bikainak izan ohi ditugu, baina aurten, ia bi urteko etenaldiaren ondoren, inoiz baino distiratsuagoa da kartela. “Musika kontzertu itzela”, jaietako antolatzaileen berbetan. Mugi Panderoak piztuko du sua eta Evaristo Paramosek gidatzen duen Tropa do Carallorekin egingo du eztanda auzoak. Amaitzeko, azken traka: Reincidentes.

Reincidentes 1987an sortu zen, Sevillan. Andaluzian jaio arren, bere letrak oihartzun handia izan dute Euskal Herrian eta gure egin ditugu asko eta asko, batzuk ia ereserki bihurtu arte. Abestiek kutsu politiko oso markatua dute eta Fernando Madina abeslariak harro aldarrikatzen du euren izaera, horrekin egin baitute hainbeste urtetako bidea eta horregatik sortu dutelako komunitate handia Euskal Herrian zein munduko toki askotan.

Pandemiaren ondorioz etenaldia egin behar izan ondoren, 2022an berriz bueltatu zarete errepidera. Nolakoa izan da itzuleraren sentsazioa?

Zirraragarria. Errepidea eta eszenatokiak dira musikaren benetako saltsa. Konposatzearekin, entseatzearekin eta diskoak grabatzearekin hasten dira gauzak, baina benetako gauzak zuzenekoetan gertatzen dira. Beraz, bi urte hauetan oso kontzertu gutxi eskaini izanak (edo batzuetan bat ere ez) kalte egin digu eta, berriz ere martxan jarri garenean, berpiztu egin gara talde moduan, demaseko sentsazioa izan da.

Pandemian Argentinako Cosquin Rock jaialdirako streaming bitartez egindako kontzertua argitaratu

zenuten eta, gero, kolaborazioak egin dituzue zenbait musikarirekin (Rozalen, Kutxi Romero, Capita Cobarde...). Lan berriren bat duzue esku artean?

Pandemiak gure asmoak nahastu zituen eta, nola edo hala, gauzak egiten ari gara. Egia da, hala ere, disko berria egiteko asmoa dugula, baina ez dugu datarik zehaztu nahi, nahiko sasoi nahasia izan delako eta ez dugulako bete ezin izango dugun konpromisorik hartu nahi. Baina bai, abesti berriekin lanean gabilta. **la lau hamarkada daramatzazue egurra ematen eta pandemia batek ere ez zaituzte gelditu. Nola egiten duzue musikaren sugarrari bizirik eusteko?**

Ez dugu ezer berezirik egiten, sugarrak bere kabuz jarraitzen du bizirik. Reincidentesen indar nagusia taldea sortu genuenen arteko adiskidetasuna da, hau da, Manuel Pizarro, Barea eta nire arteko laguntasuna. Bateratasun horretatik irteten da taldearen indarra; baina, bestetik, taldearen barne-funtzionamendua oso demokratikoa da, oso asanblearioa, eta sasoiari sasoiko gorabehera artistikoei edo ekonomikoei aurre egiten lagundu digu horrek. Gure ametsak berean jarraitzen du: musikaz bizitzea. Publikoarekin gozatzeko jarraitu nahi dugu eta gure jarraitzaileekin dugun hartu-emanaren ere oso garrantzitsua da guretzat.



Reincidentes taldeak emango dio amaiera gaurko musika emanaldiari. REINCIDENTES

Izan ere, musika egiten duen taldea baino gehiago zarete, jarraitzaile sutsuak dituzuelako eta komunitate handia sortu duzuelako zuen inguruan. Hori sentitzen duzue?

Musikaz haratago doan zerbait dago publikoaren eta gure artean. Denbora asko daramagu martxan eta, horren ondorioz, lagun-sare handia ehuntzeaz gain, belaunaldi ezberdinetako zaleak ditugu (gurasoek seme-alabei pasatutako zaletasuna izan da batzuetan), Reincidentesen inguruan komunitatea sortuz. Espero dugu horrek denbora luzez jarraitzea, behintzat indarra dugun bitartean, eta momentuz badugu indarra.

Zuen letrek kutsu politikoa eta izaera soziala dute, eta zenbait injustizia salatu dituzue urte hauetan. Antzera aritu diren zenbait taldek zentsura jasan dute. Zuei horrelakorik gertatu zaizue?

Irratian edo telebistan azaltzeko arazoak izan ditugu gure letren eta esaten dugunaren ondorioz, baina kontzertuen aldetik ez dugu zentsurarik jasan, Soziedad Alkoholika taldeari gertatu zaion bezala, adibidez. Komunikabide nagusietan azaltzeko orduan bai ja-

“Konposatzearekin, entseatzearekin eta diskoak grabatzearekin hasten dira gauzak, baina benetako gauzak zuzenekoetan gertatzen dira”

ri digute betoa, eta logikoa da gure mezua ez delako batere eroso establishmentarentzat. Hori onartzen dugu eta orain ez gara ilargiari buruz abesten hasiko telebistan edo irratian agertu ahal izateko.

Zentzu horretan, urte hauetan ez da aldaketarik izan taldean?

Pertsona moduan heldu egin gara, baina ez dut al-daketa berezirik edo handirik somatu gure artean. Noski, nagusitu egin gara, gure ideiak sendotu egin dira eta forma eman diegu, baina inoiz ez dute beste norabiderik hartu. Izatekotan, gure ideiak berretsi

Informazio gehiago
taldearen webgunean:



egin ditugula esan daiteke. Gainera, heldutasun pertsonala heldutasun musikalean adierazten da eta, zentzu horretan, eklektizismo gehiago garatu dugu, letra generiko gehiago landu ditugu (nahiz eta ia beti zerbait aldarrikatu) eta maila handiko kolaborazioak lortu ditugu. Adibidez, bandaren lehen bost urteetan pentsaezina izango litzateke Rozalen edo Capitan Cobarde bezalako musikari batekin jotzea. Urteek irekitasuna eman digute, burua zabaldu dugu eta abestiak konposatzeko orduan ere estiloa anitzagoa da.

Beraz, arlo musikalean igarri duzue aldaketa?

Aldaketa baino, eboluzioa egon da. Hasieran generikiena egiten genuen bakarrik, eta hori ere hala-nola egiten genuen. Orain, ostera, gehiago dakigu, estilo eta estetika berriak irten dira, eta urteen poderioz gauza asko ikasi ditugu. Zure bihotzak eta buruak gauza onak hartzen ditu eta zure musikarekin nahastu dituzu; bai diskurtsoa, bai planteamendu estetiko eta musikala.

Sevillakoak izanda, lotura berezia duzue betidanik Euskal Herriarekin. Nola sentitzen zarete hemen jotzen duzueanean?

Hasieratik etxean bezala sentitu gara Euskal Herrian. Izan ere, lehen birak Euskal Herrian egin genituen eta bikain hartu gintuzten. Zerbait exotikoa ginela uste dut. 80. eta 90. hamarkadan Euskal Herrian rock eta punk bolada handia bizi zen eta, handik mila kilometrotara jaio arren, etiketa horrekin bat egiten genuen. Bitxia zen, baina zentzu onean. Egiten genuen horri balioa eman zioten eta, horren harira, lagun asko egin genituen Euskal Herrian, eta harrezkero harreman berezia izan dugu Euskal Herriarekin. Gainera, gitarra-jolearen bikotea euskalduna da eta nire aita Lazkaokoa. Beraz, lotura benetan estua dugu.

Nolako kontzertua eskainiko duzue gaur Amañan?

Gure ibilbidean zehar egin dugun guztiaren laburpena egingo dugu moduren baten. Azken bi urte hauetan ez gara geldirik egon, baina bai izan da bitxia (kontzertu akustikoak jotzen, aforo mugatuarekin... musiko



“Publikoarekin gozaten jarraitu nahi dugu eta gure jarraitzaileekin dugun hartu-emana ere oso garrantzitsua da guretzat”

sentitzeagatik batez ere) eta, gitarra-jole berria dugunez, Reincidentesen ibilbidea erreparatzen duen erreperitorioa prestatu dugu. Jendeari asko gustatu zaio gure proposamena. Izan ere, pandemia ondoren nahiago zuten gure betiko abestiak entzun, azken diskokoak baino. Disko berria kaleratzen dugunean proposamena aldatuko dugu, baina orain, azken diskotik urteak pasa direnez, aproposagoa ikusi dugu taldearen ibilbideari erreparosoa egitea. Gauza berriek tokia izango dute, baina 20 disko kaleratu ditugu eta badugu non aukeratu.



Gros Xake Taldeak irabazi zuen 36. Eibarko Hiria Xake Txapelketa

Aurreko zapatuan jokaturako Jose Mari Kruzetaren omenezko 36. Eibarko Hiria Xake Txapelketan, Donostiako Gros Xake Taldea izan zen garaile, 45 puntu pilatuta. Euskal Herri guztitik etorritako 14 talde bildu ziren arratsalde osoan zehar jokatu zen txapelketan. Berritasun gisa, 3 minutu eta jokaldi bakoitzagatik 2 segundo gehigarri ematen diren erritmoan jokatu ziren partidak, azkenaldian ohiko bihurtu diren erloju digitalei esker. Gainera, xake-erraldoi bat ere jarri zen Untzagan eta bertaratu ziren asko eta askok jokatu zuten partidaren

bat edo beste. Sam Juan jaietako egitarauan bere tokia hartu duen lehiaketa hori da jaietako azkena.

Gros Xake Taldearen atzetik, sailkapenean Arrasate-Arlutz sailkatu zen 42 punturekin, ondoren Abadiño 39rekin, Errenteriako Fomento Cultural 37rekin eta Barakaldo 33rekin. Eibarko taldeei dagokienez, Deporrek bi taldeak azkenaurrekoa eta azkena izan ziren. Lehenengo taldean Jon Arana, Xabier Beorlegi, Jose Antonio Garrido eta Lander Aja aritu ziren, eta bigarrenean Diego Olmo, Aitor Beorlegi, Emilio Jose Freire eta Aimar Garcia.

Escuderia Eibarko bikotea garaile Goilurrak rallyan

Iñaki Narbaizak eta Unai Etxeberriak osaturako tandem eibartarra irabazle izan zen aurreko zapatuan jokaturako Goilurrak rallyan. Goizeko lehen erlojupekotik abiadura onarekin hasi zen Escuderia Eibarko bikotea eta sailkapen orokorren lehen postuari eutsi zioten egun osoan, azkenean txapela eskuratu



arte. Goizeko atalean taldeek Endoia, Azurki eta Azkarate inguruetan gainditu behar izan zituzten erlojupekoak eta arratsaldean, berriz, Mutiloa eta Zerain, Zegaman amai-

tu arte. Gure herriko txapeldunen atzetik, podiumeko bigarren eta hirugarren postuetan Antxustegi-Urresti eta Uranga-Guridi bikoteak sailkatu ziren.

Pello Osorok sei minutuko abantailarekin irabazi zuen Legutioko triatloia

Hitzik ere ez dago ia gure herriko triatletak egiten diharduen denboraldia definitzeko. Onditzen egindako erakustaldiaren ondoren, oraingoan Legutioko triatloian nagusitu zen Osoro, beste aurkari guztiei alde handia aterata. Igerian bi kilometro egin ondoren, uretatik Xabier Labakarekiko bi minutu

eta erdiko atzerapenarekin irten zen Pello. Bizikleta gainean, baina, beste erakustaldi bat egin zuen eibartarrak, hurrengoari lau minututik gora kentzeko. Helmugan 2:23:32 denbora erakutsi zuen eibartarrak, Paul Bereziartua handik sei minutura helmugaratzeko eta Ander Segurola (Osororen talde-

kidea Alusigma Peñota Dental taldean) 7 minutu eta 22 segundora ailegatzeko. Emakumeetan Jone Aizpurua nagusitu zen.

JAZ Eibar Triatloi Taldeko Maialen Zubizarreta 12. postuan sartu zen eta Miguel Ledesma 13. izan zen gizonezkoetan. Gaizka Altuna, azkenik, 110. postuan sailkatu zen.

Garitanoren taldeak atzo hasi zuen aurrendenboraldia Atxabalpen

Arratsaldeko 17:00etan izan zuen Eibar FT-ko talde nagusiak aurrendenboraldiko lehen saioa Atxabalpeko instalazioetan. Oraingoan taldea ez da inora irtengo stagea egiteko eta Arrasateko kantxa bihurtuko da prestaketa horietako gune. Taldeak jokatuko dituen lagunartekoei dagokienez, hilaren 16an izango du lehenengo partidua (Calahorran, 19:30etik aurrera). Handik astebetara, zapatuan berriro, Oviedoren kontra jokatuko dute Kantabriako Saron herrian. Azken denboraldian maila berean izan zuen Amorebieta izango da hurrengo aurkaria, uztailaren 29an eta, behin abuztuan sartuta, hila-

ren 5ean (barixakua) Reala izango du aurrez-aurre Zubietan goizeko 11:00etatik aurrera. Arratsalde horretan Realeko beste talde batek Athletic-ekin lehiatuko du Euskal Herria Koparen bila.

2. Mailako liga hasierako hainbat partiduk ere badute, dagoeneko, euren ordutegia. Horrela, Garitanoren taldeak Tenerife hartuko du Ipuruan abuztuaren 13an, zapatuan, 17:00etatik aurrera. 1. Mailara igotzeko ateetan geratu ziren bi taldeen arteko lehia izango da denboraldia hasteko. Ligako bigarrenen eibartarrek Villarreal B igo berriari egingo diote bisita, abuztuaren 19an, 19:00etan. Eta hirugarren jardun-



Atxabalpe, aurrendenboradiko gune.

naldian Eibar FT-k Ponferradina hartuko du Ipuruan hilaren 26an, domekan, 19:30etik aurrera.

Deporreko mendizaleek Larrun inguruan egin zuten azken zeharkaldia

Lapurdikoa Oletatik (Olhette) irten eta Azkaine herrian amaituko zen zeharkaldia egin zuten aurreko zapatuan Klub Deportiboko mendi taldekoek antolatutako txangoan parte hartu zutenek. GR10 hartu zuten hasteko eta, 411 metroko Ziburumendira igo ondoren, Des-kargahandikolepora izen luzeko puntura iritsi ziren. 568 metroko Subizia izan zen hurrengo tontorra,

bertatik Ibardin eta Bera aldeko parajeak ikusteko. 700 metroko Larrun Txiki izan zen hirugarren aldapa "ofiziala", Larrunen oinera iritsi aurretik. 905 metrotan dagoen Larruneko heliportua atzean lagata, "Landetako hondartzak ere urrutian ikusten zirela", Azkainen amaitu zuten mendizaleek eguneko ibilbidea, 17 kilometro inguru egin eta gero.



Irailaren erdialdean hasiko dute denboraldia eskubaloiko lehen taldeek

Emakumezkoen talde nagusiak Zilarrezko Ohorezko A Mailan jokatu du hurrengo denboraldian, hau da, maila igo du bi urtez jarraian, eta gizonetzkoenak 1. Nazional Mailan jarraituko du berriro, azken denboraldian txapela jantzi eta gero. Fernando Fernandez talde honek Club Hanbol Palautordera-Salicruri egingo dio bisita lehen jardunaldian, emakumezkoenak Ipuruan Zaragozako Ideam BM La Jota hartuko duen bitartean. Denboraldi berrian hainbat derbi jokatuko dituzte bi taldeek: emakumezkoenak irailaren 25ean Elgoibarko Gaurve Asesores izango du aurkari eta abenduaren 4an Ermuko Lauko Errotabarri; gizonetzkoen taldeak, bestalde, Elgoibarko Alcorta Forging Group igo berria izango du aurkari azaroaren 20an.



Kezka taldekoak Galesen arituko dira dantzan

Kezka Dantza Taldekoak Galesera joango dira bidaian uztailean, Gerrako Umeen 85. urteurrenerako The Basque Children UK'37 elkarteak antolatutako biltzarrean dantza egitera. Zehazki Caerleon-Newporten egongo dira, 1936ko Espainiako Gerra Zibiletik ihesi euskal umeak errefuxiatu zireneko urteurrenean, uztailearen 14an eta 15ean emanaldiak eskaintzen.



Burundako Hiztegia eman du argitara Koldo Zuazok

Koldo Zuazok Burundako Hiztegia kaleratu berri du. Hizkuntzalari eibartarrak aurretik ere osatu ditu beste toki batzuetako hiztegiak eta oraingo honetan Nafarroako mendebaldean, Arabaren eta Gipuzkoaren mugan dagoen Burunda eskualdean aritu da. Sei herrik osatzen dute: Ziordia, Olatzagutia (Olazti), Altsasu, Urdiain, Iturmendi eta Bakaiku. Bere kokagunea dela eta, hango hizkera hiru alderdietatik elikatu da: Nafarroatik, Arabatik eta Gipuzkoatik. Badira, gainera, han sortutako hitz bereziak eta baita han gordetakoak ere. Ondare lexiko horren zati esanguratsua bildu da hiztegi honetan: 3.941 sarrera dakartzta, 1.446 azpizarrera, 75 esamolde eta 46 esaera



Banatu dituzte maiatzean egindako rallyaren sariak

Ekainaren 21ean banatu zituzten Eibarko Klub Deportiboan Argazkilaritza Maiatzean-en barruan egin zen Argazki Rallyaren sariak. Digital koloretan Jose Angel Amuchastegui (Donostia) izan da irabazlea, Adiel Zabala (Zestoa) bigarren sailkatu da eta Javier López (Durango) geratu da hirugarren. Zuri-beltz paperezko modalitatean Zigor Astigarraga Penedok (Donostia) irabazi du lehen saria eta atzetik geratu dira Fernando Solana (Eibar) eta Carlos Romero (Ondarroa), bigarren eta hirugarren postuetan hurrenez hurren. Gazte saria Uxue Solanarentzat izan da eta sari soziala Jose Luis Irigoienentzat (zuri-beltz paperezko modalitatean) eta Fernando Solanarentzat (digital koloretako modalitatean).



Sostoa Abesbatza Tarragonan

Sostoa abesbatza ohiko jardunera bueltatzen ari da. Ekainaren 19an Coliseoan egon ziren Oskarbi taldearekin batera eta ehun lagunetik gora bildu ziren bertan. “Kritika onak eta iruzkin positiboak jaso ditugu”, diote Sostoaatik. Gainera, aurreko astean “Hariak 2022” ekimenaren aurkezpenen ere hartu zuten parte, Coliseoan bertan. Eta asteburuan Tarragonan egon dira “Cor Xera” abesbatzarekin batera kantatzen, Can Canals aretoan. Urrian, bestetik, kataluniarrak gurera etortzea espero dute.



Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestra gaur Errebalen

Alain Sanchok zuzentzen duen Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestrak (EJJO) kontzertua eskainiko du gaur, Errebal Plazan, 20:00etatik aurrera. Errepertorio zabala osatu dute Big Banderako, alboka, txistua, txalaparta eta trikitia ardatz hartuta. Euskal musika tradizionala eta Big Banden soinuak fusionatuko dituzten kontzertuan Iñaki Askunze, Carlos Sagi eta Sergi Vergés bezalako ospe handiko konpositoreen lan berriak entzun ahal izango dira. Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestra Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bultzatutako hezkuntza-musika proiektua da, eta 12 eta 19 urte bitarteko 30 gaztek hartzen dute parte. Musika Profesionalaren Irakaskuntzaren curriculumean Moderno eta Jazz Musika egiteko ibilbide hezigarria egiteko aukera sortu da modu horretan, bai musika eskoletan bai kontserbatorio profesionaletan.



Untzagako poeten irteera

Untzagako jubilatutako "Poesía... eres tú" taldekoak kalera irten ziren San Juan jaien atarian, ekainaren 23ko arratsaldean. Egin zuen bero handiarekin kikildu barik, Untzagan elkartu eta gero, herriko erdialdeko kaleetan aritu ziren errezitatzen.



Arrateko bertso afarirako sarrerak bazkideentzat salgai

Aurten berriz ere egingo da Arrateko Bertso Afaria, ... eta kitto! Euskara Elkartek antolatuta. Ohikoa den bezala, irailaren 7an (eguztzena) izango da, 21:00etan, oraingoan Tiro Pitxon jatetxean. Tokia ez ezik, parte hartuko duten bertsolarietan ere aldaketak egongo dira: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Alaia Martin eta Sustrai Colina etorriko dira afalostean bertsoan egitera, Jon Mikel Mujika gai-jartzaile dutela. Euskara elkarte bazkide direnentzat sarrerak astelehenean ipiniko dira salgai, 36 eurotan, ... eta kitto!-n, uztailearen 22ra arte. Bazkide ez direnek, berriz, uztailearen 23tik aurrera izango dute erosteko aukera, Kultu, Guridi eta Tiro Pitxonen bertan, 38 eurotan.

Bi argazki erakusketa antolatu dituzte uztaileko

Uztailearen 31ra arte egongo da Jose Luis Garcia de Madinabeitia, Txaro Barinaga-Rementería, Nekane Aramburu eta Pili Aguayoren argazkiak ikusteko aukera, Klub Deportiboan eta Portalea tabernan. Deporrek Argazkilaritza Taldeak antolatu ditu erakusketak.



I. Ojanguren argazki-lehiaketa



Irailaren 1etik 30era bitartean aurkeztu ahal izango dira XXXV. Indalecio Ojanguren argazki-lehiaketarako lanak. Lehiaketa, gainera, 09/2022 Argizaiola lehiaketaren sailkapenerako baliagarria da. Informazio gehiago Udalaren webgunean duzue.



AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

		4						9
7						2		
				6	2	5		8
		3	8					6
4								2
	8				5	3		
8		1	9	4				
		7						6
2						1		

P	S	I	R	C	E	N	O	T
P	B	E	L	L	E	S	T	A
P	O	D	E	R	A	S	T	R
J	A	R	A	S	T	R	E	R
F	I	R	A	S	T	R	E	R
S	O	N	A	S	T	R	E	R
R	P	S	T	R	E	R	E	R
L	I	C	H	A	S	T	R	E
L	I	C	H	A	S	T	R	E
R	P	S	T	R	E	R	E	R

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

A	L	R	T	I	C	E	N	O	T
P	O	L	I	N	O	S	E	A	B
P	O	D	E	R	A	S	T	R	E
C	O	N	A	S	T	R	E	R	
A	L	I	N	O	S	E	A	B	
R	I	T	O	S	C	R	P	A	
L	O	R	O	R	O	S	P	A	
L	O	R	O	R	O	S	P	A	
L	O	R	O	R	O	S	P	A	
L	O	R	O	R	O	S	P	A	

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

			4	2	3			
	3	7		8				2
			3				9	1
	4							
3	8				5		9	
						6		
4	7			3				
8			2			1	5	
		2	9	4				

Uztailak 8/14

BARIXAKUA 8

AMAÑAKO JAIAK

18:30 Kuadrilen jaitsiera, dorreetatik Amañako plazaraino, Ermuko Irulitxa txarangarekin.

19:00 Jai hasierako txupinazoa, Eskozia la Brava peñaren eskutik.


19:30 Kalejira, Ermuko Irulitxa txarangarekin.

20:00/21:30 Kontzertua, Mugi Panderoarekin.

23:00 Kontzertua, Mugi Panderoa, Tropa do Carallo (Evaristo) eta Reincidentes taldeekin. Amaña.

MUSIKA

20:00 IJO Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestra. Errebal Plazaia.



TOPAKETA

XVII. Eibarko Lambretta Topaketara etorritakoei harrera eta afaria.

ZAPATUA 9

TOPAKETA

10:00 XVII. Eibarko Lambretta Topaketako parte-hartzaileen akreditazioak. Untzaga.

12:00 Kalejira herriko kaleetan.

12:30 Ibilbidea Trabakuara eta Enrique Mugarzari omenaldia.

13:30 Ibilbidea Arratera eta bazkaria Tiro Pitxonen.

14:30 Bazkaria eta sari-banaketa.

18:30 Itzulera, Amañara bisita eta Lambretta motorren erakusketa.

20:00 Afari-merienda Kontent tabernan.



AMAÑAKO JAIAK

10:00/15:00 Azoka.

14:30 Herri-bazkaria: paella.

16:30 Umeendako parkea, gaztelu puzgarri eta espuma-jaiarekin.

19:00 Ogitarteko-erdiak salgai: txorizoa eta hirugiharra eta solomoa, piper eta gaztaiarekin.

19:15 Txokolatada, ume guztientzat.

19:30 Kallejonada, "México Lindo Sí Señor" mariatxiarekin.

20:00 Kontzertua, "México Lindo Sí Señor" mariatxiarekin.

21:00 Elektro-txaranga, Distopiarekin.

21:00 Herri-afaria.

23:00 Berbena, Lisker taldearekin.

23:00 Helduen danborradaren irteera.

00:00 Danborradaren iritsiera Amañako plazara.

00:00 Berbena, Lisker taldearekin. Amaña.

MUSIKA

11:00 Usartza Txistulari Taldearen kalejira. Amaña.



DOMEKA 10

TOPAKETA

10:00 XVII. Eibarko Lambretta Topaketa: ibilbidea eskualdean eta hamarretakoa.

14:00 Agurra.

SAN KRISTOBALGO JAIAK

11:00 Txupinazoa, jaien hasiera. Tirolina Fray Martin Malleako parkean. Haurren marrazki lehiaketa.

11:15 Dardo eta igel-toka txapelketa. Haurrentzako kontzentrazio-lasterketa.

12:00 Meza, hildakoen alde.

13:00 Triki-poteoa. San Kristobal.

AMAÑAKO JAIAK

11:00 Meza, Amañan eta Eibar guztian hildakoen alde, Amañako parrokian.

12:00 Salda eta txorizoa bildutako guztientzat, Amañako plazan.

12:30 Umeen danborradaren irteera.

14:00 Ogitartekoak eta freskagarriak danborradan jardundako ume guztientzat.

18:00 Amaña es la Caña elkartearen sari-banaketa.

18:00 Umeendako antzerki-ikuskizuna, "Gora bihotzak!" lanarekin.

19:00 Ogitarteko-erdiak salgai: txorizoa eta hirugiharra eta solomoa, piper eta gaztaiarekin.

20:00 Kontzertua, Puro Relajo taldearekin. Amaña..

EGUENA 14

SAN KRISTOBALGO JAIAK

22:00 Igel-toka txapelketa. Xania taberna.

ERAKUSKETAK

Uztailaren 31ra arte:

- **Jose Luis Garcia de Madinabeitia, Txaro Barinaga-Rementería, Nekane Aramburu eta Pili Aguayoren argazkiak.**

(Klub Deportiboa eta Portalea taberna).



Eskualdeko Agenda

DEBA

JAZZAZ BLAI JAIALDIA

9an (zapatua)

Alamedako karpan

19:00: Malvina Masternak kontzertuan

22:00: Juanma Urrizaren "Mamel" proiektzioa

10ean (domeka)

Kultur Elkarteak

13:00: Xahukontzertuan

19:00: Arima Soul kontzertuan



ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **8an:** 20:00
- **9an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **10ean:** 17:00, 20:00
- **11n:** 20:30

“Minions. El origen de Gru”

Zuzendaria: Kyle Balda



2 ARETOA

- **8an:** 20:00
- **9an:** 19:45, 22:30
- **10ean:** 20:00
- **11n:** 20:30

“La isla de Bergman”

Zuzendaria: Mia Hansen-Love



ANTZOKIA

- **8an:** 20:00
- **9an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **10ean:** 17:00, 20:00
- **11n:** 20:30

“Llenos de gracia”

Zuzendaria: Roberto Bueso



ANTZOKIA

- **9an:** 17:00
- **10ean:** 17:00

“Lightyear”

Zuzendaria: Angus MacLane



Txomin Ibarluzea Orbe “Irai”

2022/06/19



“Zure irrifarreak iraungo du gure bizitzak argitzen. Beti gure bihotzean”

ASKO MAITE ZAITUGU
- ETXEKOAK -



Jose eta Angelita Mайдagan

2014/07/03 eta 2013/01/08

Urteak pasatu badira ere, gure bihotzetan jarraitzen duzue.

ASKO MAITE ZAITUZTEGU
- ETXEKOAK -

688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...**eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **JON**, hillaren 5ian 8 urte bete zenduazena. Zorionak Naiari (argazkirik ez badu nahi be) hillaren 4an 13 urte bete zittualako. Patxo haundi bana famelixaren partez.



Zorionak, **ALAITZ**, domekan 9 urte beteko dozuzena. Ondo pasa merendolan. Patxua eta besarkada haundixa famelixa eta, batez be, Naiaren partez.



Zorionak, **ARENE** (5 urte, ekaiñaren 16xan) eta **HEGOA** (3 urte, ekaiñaren 29xan)! Gure etxeko sorgin txikixak! Musu haundi bat famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **LUKEN**, gaur 7 urte betetzen dozuzelako. Eta tia **SILBIA**, aurreko barixakuan bete zenduzelako urtiak. Laztan haundi bana famelixa eta lagunen partez.



Gema Telleria Zabala

2022/06/20

"ZERU GAINEAN BI LAINO
ZOAZ, EGUZKI, GORAINO.
ZELAN EZ DEKOT BESTE GOGORIK
ZEURI KANTETAKO BAINO"
(M.U.)

Edarra izan da
zure onduan egotia.
- ETXEKUJAK -



Joxepi Zabala Olazabal

2022/06/30



"BEDAIOKO BASERRITIK
EIBARKO KALERA,
EUSKARA ETA LANA
BETI ZUREKIN BATERA"

Errazo duela
za maitabrez
Eskerrak asko
emandako
hainbeste egatik.
- ETXEKUJAK -

eskerrik asko doluminak agertu dizkiguzuen guztet!

Iragarki laburrak



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Eteak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

- 1.2. Errentan**
- Deban etxe bat alokatzen da abuztuan. Prezio onean. 677336775.
- Zumaian etxebizitza alokatzen da hamabostaldika uztail, abuztu eta iraillean. 2 logela ditu eta ondo kokatua dago. 616382416.
- Unibertsitatean ikasten diharduen bikoteak (lan fin-koarekin) pisua hartuko luke alokairuan. 1 edo 2 logelakoa. Erreferentziak. 637918620.

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Erreferentziak. 667060292.
- Bikoteak (alabarekin) pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. 2-3 logelakoa. 664823992.
- Senar-emazteek pisua hartuko lukete alokairuan Eibarren. Erreferentziak. 667059774.
- Donostian pisua alokagai uztaila eta abuzturako. Zurriola hondartza ondoan. 33 metro2. 150x190ko ohea. Labadorarik ez du (metro gutxira labandaria). Bi hilabeteak: 2.500 euro. Hilabete osoa: 1.200 euro; 20 egun, 1.000 euro. Argazkiak bidaltzen dira. 747447151.
- Deban etxe bat alokagai da abuzturako, herri erdian. 677336775.
- Senar-emazteek pisua hartuko lukete alokairuan Eibarren. Erreferentziak. 667060292.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Minusbaliatuentzat egokitua, igogailuarekin 0 kotan. 671101439. Carmen.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauze ere. Ziurtagiri sozio-sanitarioarekin. 631425686.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin). Erreferentziak. 612461563.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. 631750397.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 622023451.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta janaria prestatzeko. 14 urteko esperientzia. 680526228.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (osasun tituluarekin) eta garbiketarako egiteko. 632415374.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. 617571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauze ere. Orduka. 642084800.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan. Profesional tituluarekin. 633946701.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. 610067042.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak (baita gauze ere) edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 661079635.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin) eta etxeko garbiketarako egiteko. Orduka. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. 722408667.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 642782903.

4.2. Langile bila

- Kirol teknikaria behar da. Beharrezkoa: euskera jakitea eta aquabike, aquafitness eta igeriketa ikastaroak emateko ikasketak izatea. 688610620. eibarigerixan@gmail.com
- Elgoibarko enpresa batek jendaurrerako eta biltegirako pertsona behar du. Ordenagailuko gutxieneko ezagutzak eta gidabaimena izatea baloratuko dira. Bidali curriculum: hornikuntza@gmail.com
- Administrazio profileko pertsona behar dute Eibarko hortz-

- klinika bateko kide izateko. Sektorean esperientzia izatea eta euskera jakitea baloratuko dira. Bidali curriculum: dentalweb@hotmail.com
- Idazkaria behar da aholkularitza batean. Orduka. luengo41@gmail.com
- Kamarera/o behar da Eibarko jateetxe batean. Curriculum Eibarko 331 postakutxatilara.
- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Esperientziarekin. 665308025. ionurion@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- DBHko, Batxilergoko eta Selektibitateko prestatzeko klaseak ematen dira. Talde txikiak. 678937827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Camper furgonetari atxikitzen den geladun kanpin-denda salgai. 70 euro. 695708100.
- DBH4-ko liburuak erosiko nituzke. 637587811. Amaia.
- Eibar BHIko DBH 3. eta 4. mailako liburuak salgai. 615712216.
- Ponyak saltzen dira. 679824081.
- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. 688624326.

6.2. Eman

- Alemaniar-artzain bi txakur oparitzen dira. 612298060.

ego-gain, 6

KONTENT

943 11 86 91

Gustora egoteko
tokia... eta **GOXO-GOXO**
7. urteurrena



-  **Kafetegia**
-  **Restaurant**
-  **Pintxoak**
-  **Pub**
-  **Taska**



HELDU!

Ekintzailetza berritzailea
Emprendizaje innovador

EIBARKO EKINTZAIETZA-PROGRAMA



ZURE NEURRIRA PRESTATUTAKO FORMULA

TUTORETZA
+
AHOLKULARITZA
+
FORMAZIOA

➔ IZENA EMAN IRAILAREN 11 BAINO LEHEN:

 heldueibar.debegesa.eus

 ekintzaile@debegesa.eus



gremioen gida



943-206776

ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac

Tfnoa: 943 12 73 50
www.trinmer.com

trinmer



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E.

CONSEJO REGULADOR DE
INGENIEROS DE
TELECOMUNICACIONES



ERAIKINEN
MANTENUA
TELEKOMUNIKAZIOAN
E.I.T.
info@itittelefonos.com tlf. 943 80 18 00
AJT Zibortuzana S.L.P.
Barrera, 6 - beheko esk.

ITURGINAK

Miguel Azpiri
ITURGINA

BEREHALAKO
ZERBITZUA
ematen da

- Korporaketak
eta ordezkatzuek
ITURGINTZAN
- Korporaketak
eta interbideak
KALEFAKZIOAN

635 13 38 41

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko arotzgia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txanta, 30 - 1. eta beheko
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA

EIBARREN, Urkiza 28oa (tel. 943 12 74 81)

ERREFORMAK



**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA

Rosaldo, 15 - Euzobak -
605 713 168 943 744 019

KRISTALAK

ACHA *Kristaldegia*
HELBIDE
BERRIA: **J.A. GISASOLA, 4 - ac**
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriasacha.com ERAKUSKETA
eta faxa: 943 203 903 Arrixeako Zubia

ELEKTRIZITATEA

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRITZAGARRIAK
610 532 922 www.thelecer.com

24 orduko
argentziak

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobeaz
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa: 943-120108
www.irazabal.net

PINTURAK

baglietto
PINTOREAK
Zoru mota guztiak
Pinturak / Dekorazioa
Errebal, 21 www.bagliettoibar.com
Tel: 943 201 922 bagliettoibar@gmail.com

Tel. 667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.